

'Ezpainetakoa', helduentzako album iradokitzailea



Ane Labaka eta Malen Amenabar, testugilea eta ilustratzailea, hurrenez hurren. / MÓNICA RIVARO

Markina-Xemeingo Udalak antolatutako Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen Malen Amenabar eta Ane Labakaren lana Ereinek eman du argitara

NEREA AZURMENDI

Sábado, 10 noviembre 2018, 09:46



Argitalpenaren tamainak (215x300 mm) eta koadernaketak besterik iradokitzen badute ere –azaleko ilustrazioak ematen du pistaren bat–, '**Ezpainetakoa**' ez da haurrentzako album bat, helduentzako liburu ilustratu bat baizik. Gurean oso ohikoa ez den formatu hori aukeratu zuen 2005ean Markina-Xemeingo Udalak, euskarazko sorkuntza bultzatzeko asmoarekin [Peru Abarka lehiaketa](#) sortu zuenean. Horri eutsi dio, aurtengo ediziotik aurrera Erein argitaletxea duela bidelagun.

Elkarlanak ostiral goizean Donostian aurkeztu den 'Ezpainetakoa' albumarekin egin du lehen urratsa. Lehiaketaren oinarrien arabera, aurrena aukeratu zuten testua –32 lanen artean–, eta bigarren deialdi batean hautatu zen ilustratzailea. Testu irabazlea **Ane Labaka Mayoz** idazle eta bertsolariak aurkeztutakoa izan zen, eta ilustrazioak, berriz, **Malen Amenabar Larrañagarenak**.

Bazuten proiektua hasieratik amaierara elkarrekin sortzea eta burutzea, **Nerea Ibarzabal eta Mariñe Arbeorekin batera** [Txakur Gorria](#) sormen kolektiboa osatzen duten heinean elkarrekin sortzea ez baita haientzat

ariketa berria. Lehiaketaren oinarriek bestela jardutera behartu dituzte, baina, eta gustura azaldu dira biak ariketarekin, solas moduan prestatuta ekarri duten aurkezpenean. Liburua bera bezala, esaldi batekin hasi eta amaitu dute: **«Gauza batzuk ez dira inoiz bukatzen. Bukatu aurretik galdu egite ditugu beti».**



Azaleko ilustrazioa.

Ez dago esaterik zein den egile biek aurretik elkar ezagutzeak azken emaitzan izan duen eragina, baina nabarmentzeko modukoa da **testuek**

eta irudiek elkar elikatzeko duten gaitasuna. Labakaren testuak badu ahots bat, istorio bat kontatzen duena modu nahiko linealean. Tarteka, kontaketa eten eta beste usain bat duten gogoetak txertatu ditu ditu. «**Gorputzetik idatzita**» dago, egilearen hitzetan, eta handia da **gorputzaren protagonismoa.** «Biluzketa ariketatik» asko duen «kontaketa intimoan» badago, halaber, «fikzioaren eta errealitatearen arteko joko»a». Amenabarrek Labaka ondoan zuela irakurri zuen lehen aldiz testua. Lanak iraun duen bitartean ere ez dira elkarrengandik urrun egon. Sormen prozesuak modu independentean garatu dira baina, aldi berean, «bi alorrak parean» egon dira. Eta ilustratzailea ez da mugatu «testua apaintzera». Interpretazio lana egin du batik bat.

«Ilustrazio figuratibora» jo du zati narratiboetan, eta gogoetei «tipografiarekin jolastuz» eman die berariazko nortasuna. **Geruza desberdinak** igartzen dira Amenabarren marrazkietan. Horrela egin du lan, geruzaz geruza. Testuak ere baditu **maila diferenteak**; esaten denetik iradokitzen denera; esplizituz gordera. 32 orriren truke 15 euro? Ez hasi zatiketak egiten. Hartu liburua eta gozatu.

TEMAS Euskera



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario
Vasco

Libros

[Top](#)


[50](#)

- 1** La nueva novela de Toti nos transporta al Badajoz de los años 30
- 2** La poesía «serena y sutil» de Basilio Sánchez le otorga el Loewe
- 3** Leire Asiain inspektorearen beste ikerketa bat
- 4** «El único camino para Colombia es la reconciliación»
- 5** 'La hija de los herejes', un hilo que conecta Sarrionandia y las 'fake news'


 **Comentarios** 

Patrocinada


Noticias relacionadas



'Goseak janak' poemariora isuri du Idurre Eskisabelek bere «bizitza paraleloa»



Beste Altzoko Handi bat, garaikide eta poetiko xamarra



Patxi Ezkiaga zenaren azkeneko poemak publikatu ditu Balea Zuriak

Fotos



📷 Zaindariari eskainitako egun biribila



📷 Los otros 'hijos' de Stan Lee



📷 Moscú recrea el desfile de 1941 en la Plaza Roja




📺 India celebra su año nuevo

Vídeos



📺 Hinds y La Mala Rodríguez triunfan en el Teatro Kapital



📺 La película de 'Breaking Bad' ya está en marcha



▶ **National Geographic
cumple 130 años**



▶ **Michael Douglas ya tiene
su estrella en el Paseo de la
Fama de Hollywood**

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



vocento ✓

Contactar | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Mapa web | Política de cookies